

Produktzio-modua

PRODUKZIOA.

Prokuradorea

procurador/membre du parlement

Espainiako tradizio zahar bati jarraiki, *Francoren erregimenak (ik. FRANKISMOA) honela deitzen zion Gorteetarako izendatua zen pertsonari.

Proletalgoa

Proletari hitza latinezko **proles**-etik dator (seme-alabak) eta Erroma zaharreko *kastamaila edo zenturi-ordenamendu servianoan, K.a. V. mendean, azkeneko zenturia osatzen zuten proletariak. Hau da, 1.500 As baino diru gutxiago zutelako, harmak ezin berek paga eta hiriaren laguntzarako beren «prolea» (seme-alabak) besterik ezin eskaini zezaketenak ziren proletariak. *Estatuarentzat, jende honen aberastasun guztia «prolea» zen. Literatura modernoan, XVIII. mendean eta Frantzia agertzen da proletari hitza, ondasun gabeko langileria adierazteko. XIX. mendean literatura moderno guztietara pasa da.

Proletalgoa gaurko usadio arruntan *klase sozial bati aplikatzen zaion kalifikazio bat da. *Burgeseriari kontrajartzen zaio.

Proletalgoa eta burgeseria, beraz, bi klase sozial nagusi antagonikoak dira, *produktzio-modu kapitalistako (ik. KAPITALISMOA) *gizarte-eraketan. Eta definitu ere, klase-definiziorik ez baita posible, beren arteko harremanen arauera (egon, klaserik ez dago; klaseak arian ari dira) eta teoriaren baten baitan eta teoriarekin batera bakarrik defini daitezke bi kontzeptu horiek; orduan, bada, proletalgo/burgeseriaren kontzeptzio eta definizio ezberdinak daude, baina historia politikoan Marxena da ondorioetan inportantea (ik. MARXISMOA). Teoria marxistan, produktzio-ondasunekiko *jabetza ikuskitzaren arauera (edukitsu/ezeduki) definitu dira funtsean proletalgoa eta burgeseria. Honela, burgeseria produktzio-bideen jabe dena izango da; proletalgoa, aldez, produktzio-bideen jabetzarik ez duela-

ko hain zuzen, lanerako indarra (produktzio-bide bat berau ere) salgai jarri beharrean dagoena izango da, berak hartaz birjabeiki disponitu ordez. Halare, bi klase baino gehiago dago beti edozein gizartetan; alokatua eta proletarioa berdintzea, nahaskeria «mitologikoa» litzateke (Poulantzas). *Botere ekonomikoaren bidez, burgeseriak politiko eta ideologikoki ere zangopean dauka proletalgoa: bi klaseok, produktzio-modu kapitalistaren oinarriko *kontraesanaren adierazpen izanik, beren arteko burrukan hartzen dute propioki existentzia; burruka hori aldatuz baitoa historian, bata-bestearekiko klase-erlaziokera ere aldatuz joanen da (klase bakoitza bere baitan ere aldaraziz, hortakoz), azkenean, Marxen ustez, *iraultza dela medio, *proletalgoaren *diktaduraz eta klase gabeko gizarte komunistaren eraikuntzaz (ik. KOMUNIAMOIA) behin eta betiko buka dadin arte klase-gizarteen historia bere *zapalkuntza ekonomiko, sozial, politiko eta ideologiko ororekin batean.

Burgeseriak, hirugarren estatu (ik. ESTAMENTUAK) zenean (h.d., feudoetatik libre zen jendea, baina ez noble, ez elizgizon, ez *Errege-*administrazioan kargudun), *aurrerapen eta *askatasunaren alde gogotik burrukatu du, batez ere VXIII-XIX. mendeetan *absolutismoaren aurka, gero bera nagusi altxatu arte, berak egin baititu *iraultza erlijiosoa, demokratikoa (ik. DEMOKRAZIA) eta teknologiko-industrialia, batetik, kultura hiritarra eta gizarte industrialia sortuz eta, bestetik, *kapitalismoan *produktziorako indarrak ere gizateriaren mantenturako behar adina aisa produzitzeraino aurreratuz. Proletalgoa, *kapitalismoak ekarria baita, kapitalismoa gaudituz bakarrik emantzipa daiteke, *produktziozko harremanak nahiz gizarte-eraketa printzipio berri baten arauera egituratuz.

Bi klaseok frankziotan banatzen dira: horrela, Erdi Aroko burgeseria, patrizio eta *ermandateetan; egungoa, berriaz, burgeseria industrial, merkatari eta finantzarioetan (haundi eta txiki etabarretan), proletalgoaren burrukan inportantea baita foko hegemonikoa (ik. HEGEMO-

pronunciamento

NIA) zehazki non dagoen ezagutzea. Proletalgoa eta burgeseria produkzio-modu kapitalista huts eta garbi baten «ereduan» bakarrik dira, hots, eraikuntza teorikoan, oinarritzko *kontraesana beren bata-bestearekiko ikuskizunetan hezurramitzen dutenak: klaseen egiazko fenomenoahagitz konplexuago da, izan, eta proletalgoaren *estrategian kontuan hartu behar da konplexitate hau, lekuan lekuko baldinkizunei egokitzeko (*aliantzarloan, a.b.,: nekazari, artista, etab.)

Burgeseriaren *ideologia espezifiko *liberalismoa da; proletalgoarena, oro har, *sozialismoa: proletalgoaren burrukan erabiltzen diren estrategia ezberdinak *sozialismoan barruan dauden eskolekin loturik datoz.

Hego Euskadin, proletalgoa XIX. mendean azkenetan hasi da bere *erakundeak asmatzen, *PSOEn barnean; anarkistek (*CNT) eta komunistek (*PCE) segitu dute; 1911.ean *ELA sortzen da, lehenengo langile-erakunde nazionala Euskadin: hemen, izan ere, *klasearteko burrukak eta askapen nazionalerako burrukak bat egiten dute, Euskal Herriko *burgeseria Estatu espainolean erabat hurrupatua gelditu baita.

Joxe Azurmendi

BURGESERIA; DIKTADURA; MARXISMOA; KOMUNISMOA.

Pronunciamento

pronunciamento / «pronunciamento»

Espainol jatorriko hitza. *Botereaz ilegaliki (ik. LEGALA) jabetu den *armada errebolta-riaren *manifestua da. Adiera zabalduz, militarren kolpea adierazten du.

ERREBOLTA; ESTATU-KOLPEA.

Propaganda

ZABALKUNDEA.

Protektoratua

DESKOLONIZAZIOA.

Protektionismoa

proteccionismo / protectionnisme

*Aduana-sistema bat, inportazioari erren-

ta haundiak ezarriz, kanpokoan *konkurentziatik bertako produzitzaileak babesten eta abantailatzen dituen, eskuarki *produktzio-sektoreren bat indartzeko asmoz.

ESTATUA; GOBERNUA; ADUANA; NAZIOARTEKO ERAKUNDEAK.

Protokoloa.

protocolo / protocole

Hiru modutara bederen uler daiteke: 1.- Notariaren langelan gelditzen diren eskribu eta dokumentu originalen bilduma; 2.- *Akordio diplomatiko bati buruzko akten bilduma; 3.- Zeremonia diplomatikoetan nola portatu behar den erakusten duen zenbait araren bilduma. Protokoloa, politikan, azken bi adiera horietan erabiltzen da.

DIPLOMAZIA.

Prozesua

proceso / procès

*Estatuak bere legeria babesteko sortzen duen forma juridikoaren erregularizazioa da prozesua.

Zibil, penal edo beste edozein alorretan dagoen legeria substantiboa aplikatzeko erabili ohi diren *ekintza kateatuek osatzen dute prozesua. Ez du *eskubiderik ematen edo eta betebeharririk ezartzen, baina bide ematen du haiek norenak eta zenbaterainokoak diren argitzeko eta beroiek betetzeko bideak nondik nora doazen adierazteko.

Prozesu-mota ezagunenak zibil, penal, kontentzioso-administratibo eta laborala dira.

PROZESU POLITIKOA.

Prozesu politikoa

proceso político / procès politique

Prozesu-mota ezberdinetako bat da. Zenbait *ekintza edo jokabide politiko debekaturik egonik gobernu-molde baten *interesen eta xedeen aurka daudelako, eta debeku hau *lege batzutan bildua egonik, prozesu politikoaren bidez, legeria hau aplikatzeko bidea egiten da.

Juzgatzen duen justizia eta juzgatua den delitua nahastu eta gurutzaturik aurkitzen dira prozesu politikoan. Epailera eta epaitua egotzez aldatu egin daitezke. Ekintza politiko baten ondorioz lehen epaile zena epaitua gerta daitezke, eta alderantziz.